



Igaraba Gipuzkoako ibai arro guztietara zabaldu da.

Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuak egindako jarraipenak espezie mehatxatu hori berreskuratu eta ugaltzen ari dela egiaztatu du.

Muniozguren gaztandegiaren “Larruz” ahuntz gazta izan zen Euskal Herriko gazta eta esneki mota guztien lehiaketaren irabazlea Esneki azokan.

Euskal Herriko XIV. Frisoi Txapelketan, Karrantzako Casa Nuevaren behia izan zen irabazlea.



Azaroaren 30etik abenduaren 2ra arte V. Sagardo Forumaz gozatzeko aukera izan zen. Sagarrari, sagardoari eta turismoari buruzko hainbat jardunaldi ospatu ziren.

Nazioarteko Sagardo azokan, munduko hainbat lekutatik iritsitako sagardoak dastatu ziren, eta, Nazioarteko Sagardo lehiaketan Suediako Pomologik izan zen irabazlea.

Segurako Ondarre Gaztandegia izan zen Ordiziako 50. Gazta Txapelketaren irabazlea.

Ordiziako 50. Idiazabal Gazta Lehiaketa azken hamar urteetan hirugarren aldiz irabazteagatik, Urrezko Garaikurra ere lortu zuen Ondarre Gaztandegia.

